

The background of the entire cover is an impressionistic painting. The top third shows a bright blue sky with white, textured brushstrokes. Below the sky is a horizontal band of warm, orange and yellow tones. The bottom two-thirds of the cover are dominated by a dense field of green foliage and numerous bright red flowers, possibly poppies, rendered with thick, expressive brushstrokes.

**Natalia**  
**Ginzburg**

BERTUTE  
TXIKIAK

ALBERDANIA

A stylized logo at the bottom center, consisting of a black outline of a pointed shape, possibly a house or a stylized letter 'A', with a red vertical bar inside.



**Natalia** BERTUTE  
**Ginzburg** TXIKIAK

ALBERDANIA





## BERTUTE TXIKIAK

*Bitartean ibillico dira becatutic becatura amilduaz;  
orain pentsamentu batean, guero seago itz loyak gozotero aditxean:  
orain escuca, edo queñada batean, guero musu edo laztanetan:  
orain ipui ciquiñac contatzen, guero dantzan,  
edo dantza ondoan alberdanian.*

J.B. AGIRRE

1. argitaraldia: 2021eko iraila.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza  
izan du liburu honek.*

© 1963, 1986, 1999, 2010, 2014, Giulio Einaudi editore s.p.a., Torino

© Itzulpenarena: 2021, Irene Hurtado de Saratxo Mendieta

© Argitaraldi honena: 2021, **ALBERDANIA, SL**

Istillaga, 2, behe C - 20304 Irun

Tel.: + 34 943 63 28 14

[alberdania@alberdania.net](mailto:alberdania@alberdania.net)

[www.alberdania.net](http://www.alberdania.net)

Azala: Junkal Motxailek diseinatu, Helen Hotson-en (Shutterstock) margolan bat erabilia.

Inprimatzailea: Ulzama (Huarte, Nafarroa)

ISBN digitala: 978-84-9868-672-2

ISBN papera: 978-84-9868-671-5

Legezko gordailua: D-966/2021



# BERTUTE TXIKIAK

NATALIA GINZBURG

ITZULPENA

IRENE HURTADO DE SARATXO MENDIETA

**ALBERDANIA**

narrazioak



**BERTUTE TXIKIAK**  
TESTUINGURUAN KOKATZEKO

NATALIA GINZBURG egile ezaguna dugu Euskal Herrian, Pello Lizarraldekin *Hirira doan bidea* eta *Arratseko ahotsak* euskaratu eta Igela argitaletxeak argitara eman zituenetik, eta are ezagunagoa urte batzuen buruan Fernando Reyk Italiako idazle honen libururik famatuena eta arrakastatsuen dena euskaratu zuenetik, 2021ean Igelak berrargitaratu duena *Familiako lexikoa* izenburuarekin.

Nobela autobiografiko horretan Nataliak xehe kontatzen ditu bere etxeko kontuak, bai Torinoko kultura- eta politika-munduarekin lotura estua zuen burgesiako bere familiaren inguruneari buruzkoak, bai eta Bigarren Mundu Gerra aurreko eta ondoko Italiako egoera sozio-politikoari buruzkoak ere, baina, paradoxikoa bada ere, apenas ematen duen daturik bere buruaz; paradoxikoa da autobiografia den aldetik, baina ez da harritzekoa bere intimitatea gordean edukitzea maite zuen egile honengandik, ez alferrik aitortu baitzigun: «Nire benetako minengatik, ez dut sekula negar egiten».

Esku artean duzun *Bertute txikiak* liburu honek hamaika kontakizun labur biltzen ditu, denak ere saiakera literarioaren eta autobiografiaren artean daudenak, 1944ko udazkenetik 1962ko udara bitartean lehen pertsonan idatziak, bi partetan antolatuak ordena kronologikoari jarraitu gabe, narrazio autobiografikoak lehen partean eta saiakera literarioak bigarrenean; eta, nolabait ere, osatu egiten du *Familiako lexikoa*, lan horretan bazter utzitako bere buruari buruzko hutsune asko betetzen baititu hemen, bere barneko kontuak agerian utziz.

*Familiako lexikoa*n aski modu objektiboan laburtutako erbestealdia sakonago agertzen da «Negua Abruzzon» kontakizunean, alemaniarrek Regina Coeliko kartzelan senarra erail ondoren Nataliak idatzi zuen lehen testuan. Hilabete gutxi batzuk lehenago jazotako gertaerak iraganaldi burutuan idatzita daude, aspaldiko garai urrun batean gertatu izan balira bezala. Mussoliniren agintepean, «Estatuaren segurtasunerako arriskutsuak ziren pertsonak» konfinamendura bidali zituzten gerra garaian, disidente politiko antifaxistak

eta juduak gehienbat, eta hala sozialistak nola juduak ziren Natalia Levik eta Leone Ginzburgek hiru urte eman zituzten Abruzzoko Pizzoli herrixkan (1940-1943) bi seme txikiekin batera –bertan jaioko zen hirugarrena, alaba–, eta hantxe idatzi zuen bere lehen eleberria Nataliak, *Hirira doan bidea*, 1942an argitaratua izan zena Alessandra Tornimparte izenordearekin arraza-bereizkeriako legeak saihesteko.

Ildo berean, lerro bakarrean jaulkitzen digu senarraren erailketa *Familiako lexikoan*, baina hemen «Zapata urratuak» eta «Gizakiaren umea» kontakizunek mamitzen dute garai latz eta mikatz hori, gerra ondoko hondamendi sozialaren eta pertsonalaren isla ere badirenak. Izan ere, Ginzburgek 1946. urtearen hasieran adiskide bati idatzitako gutun batean zioenez: «Orain gogoia egin zait esaldi itsusiak egiteko... Nolabait ere, galdua dut istorioak asmatzeko gustua. Orain gogoia egin zait neure zapatez hitz egiteko».

1950. urteko abuztuan hil zuen bere burua Cesare Pavese, Ginzburgen gaztaroko lagun eta Einaudi argitaletxean lankide zuenak, eta Pavesearen aurpegirik ezkutuenean egiten du argi «Lagun baten erretratua» testuak, haren suizidioak eragindako pitzadura oinarritzat hartuta, idazlearen izena sekula aipatu gabe.

Urte berean, 1950ean, ezkondu zen bigarren aldiz Natalia, Gabriele Baldini idazle eta literatura-irakaslearekin, eta hari eskainita dago «Bera eta ni» kontakizuna, eguneroko bat-egite eta gorabeheretatik amodioa eta samurtasuna nola ernatu daitezkeen gordin erakusten duena, gizon baten eta emakume baten arteko harremana *mansplaining* luze baten gisa itxuratuz, batere baloraziorik gabeko modu ezin objektiboagoan.

Eta 1959tik 1962ra arte Londresen Italiako Kultura Institutuko zuzendaria izan zen Gabriele Baldinirekin Ingalaterran izandako egonaldiaren fruitu dira Ingalaterrari eskainitako bi kapituluak: «Ingalaterraren gorazarrea eta arrangura» eta «La Maison Volpé». Laboristek 1945ean agintaldia eskuratu ondoko Ingalaterra topatu zuen Ginzburgek, gaur egun «ongizateko gizartea» deitutakoak sekula iritsi zituen lorpen sozialik handienak mamituta zituen herrialdea –egungo egoeraren ifrentzua–, eta bere umorez gatzozpinduta eta italiar begiradatik galbahetutako balorazio moralez zipriztinduta azaltzen digu,

orduko Erresuma Batuan hedatzen hasia zen kontsumoaren gizartearen hasikinak ere zirrimarratuz, ironiaz baina etsipenez.

Memoriari lotutako lehen parteko narrazioen ondoren, saiakera literarioen estiloa eta tonu moralista gailentzen dira bigarren partean. Soiltasun txundigarri eta aldi berean engainuzko batekin, gizarte eta komunitateari erasaten dieten gai edo auzi larri, funtsezko, premiazko eta betierekoei heltzen die Ginzburgek, berak argitzen duenez, «gure bizitzaren muinean giza harremanen arazoa baitago»: gerrak suntsitutako belaunaldiarekiko kezka, arimaren gaitzak, isiltasuna, egoismoa, erantzukizuna, errua, eta, jakina, familia, bere lanbidea, klase soziala, dirua, hizkuntzaren eta hezkuntzaren garrantzia, seme-alaben hazkuntza eta zaintza, amatasuna eta idazketa bateratzeko oztopoa, emakume izateak baldintzatutako bizitza, «bertute handien» gorazarrea eta, finean, errukia zer den ikasteko arorik aro kateatzen den giza bizitzan ibili beharreko bidea.

Ezagun da Natalia Ginzburgek, bere barrenean sentimentalkeriarako nola-halako joera sumatuta, beldur-ikara gorria ziola «melenga eta sentimental» agertzeari, gorrotagarria iruditzen baitzitzaion akatsa, femeninotzat jotzen baitzen eta berak «gizon» baten moduan idatzi nahi baitzuen, alegia, modu neutroan. Kalaka aspergarria sortu nahi ez, eta hamaika aldiz idatzi eta berridatzi zituen lehen orriak, ahalik eta zuzenen eta zorrotzen jaulki nahian. Esaldietako bakoitza zartako edo zaplazteko baten gisakoa izatea nahi zuen. Ea euskaratzean nola edo hala asmatu dugun.

IRENE HURTADO DE SARATXO MENDIETA